

## Covid-19

Covid-19aren pandemiak sortutako krisiak eragin zuzena izan du jarduera ekonomikoan eta pertsonen mugikortasunean, eta begi-bistako ondorioak izan ditu eragile ekonomiko, sozial eta demografiko nagusien bilakaeran.

TITULARRAK	ADIERAZLEAK		
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%) <small>*aurreko aldia</small>	Azken datuaren data
<ul style="list-style-type: none"> <li>Abenduan erregistratutako langabeak 22.131 izan dira. BAIren arabera, langabezia-tasa % 10,20koa da laugarren hiruhilekoan.</li> <li>Afiliatutako biztanleek -% 1,4 egin dute behera azaroarekin alderatuta, baina urtebetean 965 enplegu irabazi dira. Erregistratutako kontratuak % 35,3 igo dira urtetik urtera.</li> <li>Azalera handietako salmentek urtetik urterako -% 3,9ko beherakada izan dute abenduan.</li> <li>Urterik urtera igo dira bai ostatu-gauak (77.360 gehiago) bai bidaiarien sarrerak (38.500 gehiago). Atzerriko eta estatuko turistek sarrerak igo dira.</li> <li>2021. urteko laugarren hiruhilekoan 173 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira, hau da, 2020. urtearekin alderatuta -% 10,4ko beherakada egon da.</li> <li>Bilboko aireportuak abenduan 276.405 bidaiari erregistratu ditu, 2020ko abenduan baino 203.619 gehiago.</li> <li>Bilboko Portuan 2,83 milioi tonako trafikoa erregistratu da azaroan, aurreko urteko hil berean baino % 18,6 gehiago.</li> </ul>	<p><b>Lan-merkatua</b></p> <p><b>Afiliatutako biztanleak</b> (kop.) 179.776</p> <p><b>Erregistratutako langabeak</b> (kop.) 22.131</p> <p><b>Langabezia-tasa</b> (BAI) 10,20</p> <p><b>Erregistratutako kontratuak</b> 15.193</p> <p><b>Merkataritza</b></p> <p><b>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea</b> (2015. urtea= oinarria 100) 142,1</p> <p><b>Turismoa</b></p> <p><b>Bidaiarien sarrera</b> (kop.) 58.978</p> <p><b>Ostatu-gauak</b> (kop.) 110.073</p> <p><b>Enpresa</b></p> <p><b>Merkataritza-sozietate berriak</b> 173</p> <p><b>Garraioa</b></p> <p><b>Bidaiarien aireko garraioa</b> (kop.) 276.405</p> <p><b>Salgaien itsas garraioa</b> (milioi tona) 2,83</p>	<p>-1,4*</p> <p>-3,0*</p> <p>-0,08*pp</p> <p>35,3</p> <p>-3,9</p> <p>188,0</p> <p>236,5</p> <p>-10,4</p> <p>279,8</p> <p>18,6</p>	<p>abe.</p> <p>abe.</p> <p>abe.</p> <p>abe.</p> <p>abe.</p> <p>2021eko 4.HH</p> <p>abe.</p> <p>aza.</p>

## DATU BAT

**% 10,20**

Langabezia-tasa BAI

## LAN-MERKATUA

### Erregistratutako langabezia

Abenduan 677 langabe gutxiago erregistratu dira; horrek esan nahi du  $-3,0\%$ ko murrizketa egon dela hilabete batetik bestera, eta 22.131 langabe daudela udalerrian.

Emakumeen langabezia jaitsi egin da ( $-4,3\%$ ), baita gizonena ere ( $-1,4\%$ ): 538 eta 139 langabe gutxiago hurrenez hurren. Nolanahi ere, langabeziak gehiago eragiten die emakumei.

Erregistratutako langabeziak behera egin du adin-talde guztietan: talderik gazteenean  $-9,8\%$  egin du behera, 25-44 urte arteko taldean  $-2,8\%$  eta 45 urte eta gehiagoko tartean  $-2,1\%$ .

Sektoreka, Zerbitzuetan baino ez du behera egin (datu absolutuetan, 530 langabe gutxiago); igo egin da Industrian eta Eraikuntzan (11 eta 17 langabe gehiago kasu bakoitzean), eta berdin mantendu da lehen sektorean. Aurrez lanik ez zuen taldea murriztu egin da, 175 langabe gutxiago baititu.

EAEn, langabeziak  $-2,5\%$  egin du behera.  $-1,3\%$  jaitsi da Gipuzkoan,  $-1,5\%$  Araban eta  $-3,3\%$  Bizkaian.

**Benchmarkinga.** Espainiako bost hiriburu nagusietan (G-5) erregistratutako langabeziaren bilakaerak  $-4,4\%$ ko jaitsiera erakutsi du aurreko hileko datuen aldean. Taldeko hiriburu guztietan behera egin du langabeen kopuruak. Madrilek izan du beherakadarik ageriena ( $-6,8\%$ ).

Euskal hiriburuen multzoan (G-3) langabeziak  $-1,4\%$  egin du behera. Langabeziak behera egin du Iruñean ( $-0,5\%$ ), Gasteizen ( $-1,3\%$ ) eta Donostian ( $-2,9\%$ ).

**2021. urteko balantzea:** Bilbok 2020an baino 3.011 langabe gutxiagorekin amaitu du urtea ( $-12,0\%$ ). Urteko balantzean, langabeziak behera egin du emakumeen eta gizonen kasuan ( $-11,1\%$  eta  $-13,0\%$ , hurrenez hurren).

Sektore guztietan egin dute behera langabeek, baina zerbitzuetako beherakada nabarmendu behar da, 2.247 pertsona gutxiagorekin ( $-13,0\%$ ). Ondoren, industriaren sektorea (266 gutxiago,  $-13,5\%$ ), eraikuntza (179 gutxiago,  $-9,4\%$ ) eta lehen sektorea (25 gutxiago,  $-5,4\%$ ) datoz.

#### Erregistratutako langabeak

Abendua	22.131 pertsona
	% 3,0 ▼
Emakumeak	% 4,3 ▼
Gizonak	% 1,4 ▼

#### Benchmarkinga

Bilbo	% 3,0 ▼
G-5	% 4,4 ▼
G-3	% 1,4 ▼

G-5 Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3 Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## Afiliatuak

Bilboko enpresetan afiliatutako biztanleak 179.776 izan dira abenduaren amaieran, hau da, aurreko hilean baino 2.518 afiliatu gutxiago egon dira (-% 1,4 gutxiago).

Araubideen arabera, Araubide Orokorrean 2.346 lan gutxiago daude azaroan baino (-% 1,5). Langile autonomoen araubide berezian 125 langile galdu dira, eta 34 etxeko langileen araubidean (-% 0,6 eta -% 0,5, hurrenez hurren).

Euskal Autonomia Erkidegoan afiliatutako biztanleen kopuruak % 0,1 egin gu gora hilabete batetik bestera. Bizkaiak % 0,4 egin du gora eta Gipuzkoak % 0,1. Gipuzkoan, aldiz, afiliazioa murriztu da -% 0,7.

**Benchmarkinga.** Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak -% 1,9ko jaitsiera islatu du aurreko hilaren aldean. Behera egin du kontuan hartutako hiri guztietan. Bartzelonan izan da beherakadarik handiena (-% 2,7).

G-3ko hiriburuetan, batera hartuta, afiliatuen kopurua guztira jaitsi egin da: -% 2,6. Donostian -% 2,0 jaitsi da, Gasteizen -% 2,3 eta Iruñean -% 3,4.

**2021. urteko balantzea** Hiriko enpresetan aurreko urtean baino afiliatu gehiagorekin itxi da 2021. urtea. Hain zuzen ere, igoera % 0,5ekoa izan da, hau da, 965 enplegu gehiago egon dira.

Araubide Orokorra % 0,7 hazi da (1.034 afiliatu gehiago), eta Etxeko Langileen Sistema Berezia % 0,3 (20 gehiago). Afiliazioa galdu dute Autonomoen Erregimen Berezia (-%0,2) (50 gutxiago) eta Bestelakoen epigrafeak (-%5,8) (39 gutxiago).

Sektoreen arabera, lehen sektoreak izan ezik (-% 4,2), enplegua irabazi dute beste sektore handi guztiek: Zerbitzuek % 0,5, Eraikuntzak % 0,4 eta Industriak % 0,6.

Zerbitzuei dagokienez, nabarmentzekoak dira hezkuntza erregistratutako gorakada (% 3,4 eta 755 afiliatu gehiago), baita jarduera profesionalean, zientifikoetan eta teknikoetan (% 3,7 eta 493 gehiago) eta merkataritzan (% 1,7 eta 338 gehiago) egon den igoera ere. Jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak eta finantza- eta aseguru-jarduerak murriztu dira, urte batetik bestera 1.106 eta 333 enplegu gutxiagorekin. Osasun arloko enpleguak bere horretan jarraitzen du.

2021. urtea amaitzeko, afiliazioak gora egin du txikizkako merkataritzan (570 enplegu gehiago, % 4,2) eta ostalaritzan eta ostatuan (230 gehiago, % 2,2). Nolanahi ere, bi jarduera horiek ez dituzte 2019ko datuak berreskuratzen. Txikizkako merkataritza pandemia aurreko zifretatik 411 enplegura geratu da, eta ostalaritza eta ostata 1.279 enplegura.

### Afiliatuak

<b>Abendua</b>	<b>179.776 pertsona</b>
	% 1,4 ▼ hilabete artekoa
Araubide orokorra	% 1,5 ▼
Autonomoak	% 0,6 ▼
Etxeko Sistema Berezia	% 0,5 ▼
Beste batzuk	% 2,0 ▼

### Benchmarkinga

<b>Bilbo</b>	% 1,4 ▼
<b>G-5</b>	% 1,9 ▼
<b>G-3</b>	% 2,6 ▼

G-5 Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3 Donostia, Gasteiz eta Iruñea

<b>Abendua</b>	<b>179.776 pertsona</b>
	% 0,5 ▲ urte artekoa
Zerbitzuak	% 0,5 ▲
Eraikuntza	% 0,4 ▲
Industria	% 0,6 ▲
Lehen sektorea	% 4,2 ▼

## Kontratuak

Abenduan 15.193 kontratu formalizatu ziren Bilbon, hau da, % 35,3 gehiago aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (3.968 kontratu gehiago). 2020ko abenduarekin alderatuta, gora egin dute gizon zein emakumeei egindako kontratuak: 2.226 eta 1.742 gehiago izan dira, hurrenez hurren. Adin-tartean arabera, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagokien erregistratutako kontratuen % 49,0 (7.449 kontratu); % 28,7, berriz, 45 urtetik gorakoei (4.363), eta gainerako % 22,3a 25 urtetik beherakoei (3.381).

Sektoreen arabera, zerbitzuen sektoreak 2020ko abenduan baino 3.793 kontratu gehiago izan ditu. Igo egin dira industrian (172 gehiago) eta eraikuntzan (7 gehiago), eta jaitsi lehen sektorean (4 gutxiago). Zerbitzuetan, nabarmenezkoa da, datu absolutuetan, ostalaritzan (2.042 gehiago), administrazio-jardueretan nahiz garraio eta biltegiatzeetan (729 eta 492 gehiago, hurrenez hurren) izandako kontratuen igoera. Informazio eta komunikazioan, Jarduera artistiko, aisialdiko eta entretenimendukoetan eta Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan kontratuen gorakada garrantzitsuak egon dira, 408, 336 eta 118 gehiago, hurrenkera horretan.

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 91,2 izan dira. Abenduan 9.902 pertsona kontratatu dira eta % 56,0 emakumeak izan dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,53 kontratu.

**2021. urteko balantzea:** Urtearen amaieran 158.471 kontratu erregistratu dira, 2020. urtean baino 29.365 kontratu gehiago (% 22,7). Guztira, 65.635 pertsona kontratatu dira, aurreko urtean baino 12.396 gehiago, hau da, % 23,3 gehiago. Sexuen arabera, emakumeei 89.037 kontratu egin zaizkie (2020. urtean baino % 20,9 gehiago) eta gizonei 69.434 kontratu (% 25,2). Nabarmenezkoa da segmentu gazteenak izan duen gorakada (% 40,0). Kontratuak areagotu egin dira Industrian (% 39,0) eta Zerbitzuetan (% 23,4), eta behera egin dute Lehen Sektorean (-% 38,8) eta Eraikuntzan (-% 4,3).

## Biztanleria aktiboari buruzko inkesta

Laugarren hiruhilekoko BAIren arabera, nabarmen areagotu da okupazioa, hirugarren hiruhilekoan izandako jaitziera handiaren ondoren.

Aurreko hiruhilekoan baino 7.000 langile gehiago daude hirian.

Okupazioaren hazkunde horrek eta langabetuen kopuruaren hazkunde txikiak urteko azken hiruhilekoan 7.700 pertsona aktibo gehiago utzi dituzte hirian, eta jarduerarik ezaren jaitziera erabatekoa izan da (-8.000).

Laugarren hiruhilekoan landunen kopuruak gora egin du (% 4,6). Emakumeen artean gora egin du (3.500 enplegu gehiago), baita gizonen artean ere (3.600 gehiago).

### Erregistratutako kontratuak

Abendua	15.193 pertsona
	% 35,3 ▲
Emakumeak	% 26,5 ▲
Gizonak	% 47,8 ▲

### Langabezia-tasa BAI

IV. hiruhilekoa	% 10,20
	0,08 pp ▼
Emakumeak	0,40 pp ▼
Gizonak	0,23 pp ▲
Biztanleria aktiboa	% 4,6 ▲
Biztanleria landuna	% 4,6 ▲
Biztanleria langabetua	% 4,0 ▲

Zerbitzuen sektoreko landunen kopurua hazi egin da (9.000 enplegu gehiago), eta lehen sektorean, 400 lanpostu gehiago. Industrian, aldiz, behera egin du (2.400 lanpostu gutxiago), baita eraikuntzan ere (100 lanpostu galdu ditu).

Hirian bizi diren biztanleen enplegu-tasa % 53,90 da. Tasa hori altuagoa da gizonezkoen artean (% 59,20) emakumeen artean baino (% 49,15).

Funtsean, okupazioak izan duen hazkunde handiaren ondorioz, langabezia-tasak zertxobait egin du behera (-0,08 p.p.), nahiz eta hiruhileko zifrak kontuan hartuta langabeen kopuruak gora egin duen (700 pertsona gehiago), gizonen artean bakarrik.

**2021eko urte arteko balantzea.** BAIren arabera, argi dago jarduera berreskuratzen ari dela. Hauek dira urteko batezbestekoak:

- Bilbok 2020an baino % 5,8 landun gehiagorekin amaitu du 2021. urtea.
- Biztanleria aktiboak gora egin du (% 4,4) eta inaktiboek kopuruak behera (-% 6,0).
- Eta, kasu honetan eskura dagoen azken datuaren arabera (urtearen laugarren hiruhilekoa), langabezia-tasa -2,76 p.p. jaitsi da eta % 10,20an geratu da.

## MERKATARITZA

### Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak urte arteko -% 3,9 jaitsi dira abenduan lan-egutegiko termino homogeneotan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 1,6 jaitsi dira salmentak.

Elikagaien salmentek -% 5,5 egin dute behera 2020ko abenduarekin alderatuta, eta gainerako produktuei dagozkionak -% 0,9 gutxitu dira aldi berarekin alderatuta.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 5,6ko gorakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Araban (-% 2,0) eta Gipuzkoan (-% 4,0). EAEn, orokorrean, -% 3,7 egin dute behera.

#### Langabezia-tasa BAI

##### IV. hiruhilekoa

EAE	% 8,43
Bizkaia	% 9,50

#### Saltoki handiak Bizkaia

Abendua	142,1
Salmenta-indizea	% 3,9 ▼
- Elikadura	% 5,5 ▼
- Gainerako produktuak	% 0,9 ▼
Landunak	% 5,6 ▲

**2021. urteko balantzea.** 2021eko hamabi hilabeteetan, Bizkaiko saltoki handietako salmentek gora egin dute % 1,2an, aurreko urtearen aldean.

Aldi honetan, jatekoen salmentek -% 4,5 egin dute behera, eta gainerako produktuenak % 13,8 handitu dira.

Landunen kopurua % 5,3 areagotu da.

## TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduen sarean 110.073 ostatu-gau erregistratu dira abenduan; hau da, 77.360 ostatu-gau gehiago egon dira aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (% 236,5).

Bidaiarien sarrerak ere nabarmen egin du gora (% 188,0). Estatuko bidaiarien kopuruak gora egin du, baita atzeritarrena ere.

Estatukoak izan dira hoteletan ostatu hartu duten bidaiari guztien % 73,1. Gehienak EAEkoak izan dira (% 23,6), ondoren Madrilgo Erkidegokoak (% 21,1), Kataluniakoak (% 12,7) eta Andaluziakoak (% 8,6). Atzerriko bidaiariei dagokienez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (% 24,6), Alemania (% 7,4), Italia (% 7,1) eta ABEE (% 6,5).

Batez besteko egonaldia 1,87 ostatu-gau izan da.

**Benchmarkinga.** Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 235,4 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 176,9), Donostian (% 381,4) eta Iruñean (% 118,6).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 386,8ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Bartzelonan egon da gorakadarik altuena (% 614,0).

**2021. urteko balantzea.** Jarduera turistikoak, 2021. urtea amaitzeko, gora egin du sektoreko turismo- eta errentagarritasun-adierazle guztietan, baina pandemia aurreko zifretara iritsi gabe.

1.191.971 ostatu-gau eta 631.481 bidaiari-sarrera erregistratu dira (2020an baino % 81,5 eta % 80,6 gehiago, hurrenez hurren).

Batez besteko egonaldia 1,89 ostatu-gaukoa da bidaiari bakoitzeko, 2020an lortutakoa baino altuagoa (1,88).

### Ostatu gauak

<b>Abendua</b>	110.073 ostatu-gau % 236,5 ▲
----------------	---------------------------------

### Bidaiarien sarrera

<b>Abendua</b>	58.978 bidaiari % 188,0 ▲
----------------	------------------------------

### Benchmarkinga

<b>Bilbo</b>	% 236,5 ▲
<b>G-5</b>	% 386,8 ▲
<b>G-3</b>	% 235,4 ▲

G-5 Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3 Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## ENPRESAK

### Merkataritzako sozietate berriak

2021eko laugarren hiruhilekoan Bilbon 173 merkataritza-sozietate berri eratu dira. Horrek  $-10,4\%$ ko beherakada dakar, aurreko urteko aldi beraren aldean (20 sozietate gutxiago datu absolutuetan).

Sektoreka, industrian 20 sozietate sortu dira, hau da, aurreko urtean baino 8 gehiago; eraikuntzan 23 sortu dira eta zerbitzuetan 129 (3 eta 25 gutxiago, hurrenez hurren).

Bigarren hiruhilekoan 105 sozietate desegin dira, aurreko urteko hiruhileko berean baino  $-9,5\%$  gutxiago (11 gutxiago). Desegindakoetatik,  $78,1\%$  zerbitzuen sektorekoak dira,  $16,2\%$  eraikuntzakoak eta  $5,7\%$  industriakoak.

**2021. urteko balantzea** 2021. urtearen amaieran, guztira 714 sozietate berri sortu dira hirian, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 110 gehiago ( $18,2\%$ ).

Sektore guztietan egin du gora urtetik urtera sortutako sozietateen kopuruak: Zerbitzuetan 549 sortu dira (45 gehiago), Industrian 81 (49 gehiago), Eraikuntzan 79 (15 gehiago) eta Lehen sektorean 5 (1 gehiago).

2021. urtean guztira 370 sozietate desegin dira, 2020. urtean baino  $32,1\%$  gehiago. Zerbitzuen sektoreari  $78,4\%$  dagokio.

#### Merkataritza-sozietate berriak

##### IV. hiruhilekoa

Sortutako sozietateak % 10,4 ▼

Desegindako sozietateak % 9,5 ▼

## GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

### Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 276.405 bidaiari erregistratu ditu abenduan; beraz, urte arteko  $279,8\%$ ko igoera izan du (2020ko abenduan baino 203.619 bidaiari gehiago).

Nazio barruko hegaldiei dagokienez, 133.082 bidaiari gehiago daude, eta nazioartekoak ere hazi egin dira, 69.535 gehiago.

Egindako hegaldien kopurua, helduerak eta irteerak batuta, 2.922 hegaldikoa izan abenduan. Garraiatutako salgaien kopurua 49.410 kg izan da.

#### Aireko garraioa

Abendua 276.405 bidaiari  
% 279,8 ▲

**Benchmarkinga.** Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), 4.540.453 bidaiari gehiago zenbatu dira 2020ko abenduarekin alderatuta. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gorakada handia izan du.

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, 30.398 bidaiari gehiago egon dira. Hiru aireportuetan, halaber, gorakada garrantzitsuak egon dira bidaiarien kopuruan.

**2021. urteko balantzea** 2021. urtearen amaieran, Bilbok % 52,7ko gorakada izan du bidaiarien trafikoan aurreko urtearen aldean, 2.580.911 bidaiari lortu baitira; beraz, kopuru absolututan 2020. urtean baino 890,900 bidaiari gehiago egon dira Nolanahi ere, urteko datu horrek esan nahi du 2019an erregistratutako aire-trafikoaren % 43,7 bakarrik berreskuratu dela.

2020. urtearekin alderatuta, hegaldi nazionaletako bidaiariak % 63,5ean egin dute gora, eta nazioarteko hegaldietakoek % 24,8 (775.291 eta 114.610 gehiago, hurrenez hurren).

Garraiatutako salgaien urteko datuari dagokionez, 2020. urtearekin alderatuta % 22,8 egin dute gora, eta operatutako hegaldiek % 28,9.

## Itsas garraioa

Bilboko Portuak 2,8 milioi tonako trafikoa izan du azaroan, hau da, % 18,6 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan azaroan kudeatutako salgaien % 58,3 izan da, eta urte arteko -% 8,7ko jaitsiera izan du.

Bestalde, salgai orokorren trafikoak gora egin du (% 258,4), baita solteko salgai solidoenak ere (% 6,3).

Bidaiarien itsas garraioan, 2.038 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran. Azaroan ez da itsas bidaiei lotutako turismo-jarduerarik erregistratu.

Urteko metatuan, urtarriletik azarora bitartean, % 2,4ko hazkundera gertatu da portuko trafikoan, 2020. urteko aldi berarekin alderatuz gero.

### Benchmarkinga

<b>Bilbo</b>	% 279,8 ▲
<b>G-5</b>	% 264,4 ▲
<b>G-3</b>	% 222,5 ▲

G-5 Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3 Donostia, Gasteiz eta Iruñea

### Itsas garraioa Azaroa

<b>Portuko trafikoa</b>	2,83 milioi tona
	% 18,6 ▲
<b>Bidaiariak</b>	2.038 bidaiari
	% 32,6 ▼



## ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
<b>Lan-merkatua</b>			
Erregistratutako langabeak (kop.)	22.131	-3,0*	2021eko abe.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	179.776	-1,4*	2021eko abe.
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	15.193	35,3	2021eko abe.
Biztanleria aktiboa (milakotan)	176,3	4,6*	2021eko 4 HH
Biztanleria landuna (milakotan)	158,3	4,6*	2021eko 4 HH
Langabeak (milakotan)	18,0	4,0*	2021eko 4 HH
BAiko langabezia-tasa (%)	10,20	-0,08p.p.*	2021eko 4 HH
<b>Merkataritza</b>			
Konsumoko prezioen indizea (KPI)***	111,9	1,3*	2021eko abe.
Afiliatutako pertsonak**	19.753	1,7	2021eko abe.
Txikizkako merkataritzako salmenta (indizea)***	103,2	2,3	2021eko 3. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	142,1	-3,9	2021eko abe.
<b>Turismoa</b>			
Bidaia-arien sarrera	58.978	188,0	2021eko abe.
Ostatu gauak	110.073	236,5	2021eko abe.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia-ari)	1,87	16,9	2021eko abe.
<b>Enpresa-jarduera</b>			
Industria-ekoizpena (indizea)***	111,8	3,9	2021eko aza.
Merkataritzako sozietate berriak	173	-10,4	2021eko 4 HH
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	95,8	10,9	2021eko 3. HH
<b>Garraioa</b>			
Bidaia-arien aireko garraioa	276.405	279,8	2021eko abe.
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan) tona	2,834	18,6	2021eko aza.

\* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. \*\* Bilboko enpresetan \*\*\* Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EINren, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

## GRAFIKOAK


### Biztanleria aktiboari buruzko inkesta




### Erregistratutako langabezia




### Afiliatuak



### Erregistratutako kontratuak



### Sozietate berriak



### Hoteletako ostatu-gauak

